



516 ZK.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta hamarreko ekainaren 2an.

Lan Osasun eta Lan Arriskuen Prebentziorako zerbitzuaren kontratazio espedientea jendaurrean zabaldu gabeko negoziaziozko prozedura bidez martxan jarri zela ikusirik.

Aipatu kontratazio espedientean parte hartzeko gonbidapenak ondorengo enpresei bidali zitzaizkiela ikusirik: PREVENCILAN, S.L., URKO SERVICIO DE PREVENCION, S. COOP. eta LAUTALAN, S.M.

Kontutan hartuz gero, URKO SERVICIOS DE PREVENCION, S.COOP. enpresak ez duela proposamenik aurkeztu.

Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeak 2010ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, gai honi buruz luzatutako diktamena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki-Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, Lan Osasun eta Lan Arriskuen Prebentziorako zerbitzu-kontratua LAUTALAN, S.M. enpresari behin-behingo esleitzea ERABAKI DUT lehenengo urterako 16.530,00 €ko prezioarekin (B.E.Z. barne), eta 2 urteko egikaritze epearekin.

Era berean, 712,50 €ko behin betiko bermea jarri beharko du esleipendunak eta gizarte segurantza eta Hazienda ziurtagiriak eta falta duen dokumentazioa aurkeztu, honetarako esleipen honen iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik 15 egun balioduneko epea izango delarik. Epe hau igaro eta gero, 10 egun balioduneko epean behin betiko esleipena egingo da.

Esleipena Udal Aurrekontuko 1 0102 227 121 00 08 2010 diru atalaren kargura bideratuko da.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

